

**ERABAKIA;** honen bidez, aurrekontuetan norbaiten izenean esleitutako dirulaguntza zuzen bat ematen da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialaren arteko hitzarmen bat sinatzea baimentzen da

**ACUERDO** por el que se concede una subvención directa consignada nominativamente en los presupuestos y se autoriza la suscripción de un convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta bete garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetzaren zein garapenaren arloko politiken bidez.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquéllos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofiziala, berriz, zuzenbide publikoko lanbide-korporazio bat da, nortasun juridiko propioa eta helburuak

El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia es una Corporación de derecho público, de carácter profesional, con personalidad





betetzeko gaitasun osoa dituen. Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak derrigorrez elkartzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoan elkargoaren lanbidean diharduten graduatu sozial guztiak, eta, borondatez, lurralde honetan jardun ez arren elkargoko kide izateko eskatzen dutenak; hori guztia hargatik eragotzi gabe haren estatutuen 13.2 artikuluan ezarritako jarduketa.

Graduatu sozialaren lanbidearen ordezkartza eta defentsa da elkargoaren helburua, bai eta gizartearen interes eta beharizan orokorrak kontuan hartuta elkargokideen interes profesionalak defendatzea ere.

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak laguntza-eskaera bat aurkeztu du, bizkaitarrentzako Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzu bat emateko.

Zerbitzua doakoa izango denez borondatez eta modu altruistan proiektuarekin bat egin nahi duten eta justizia soziala herritarrei gehixeago hurbildu nahi dieten, gutxieneko bi urteko esperientzia duten jarduneko elkargokideek emango dute zerbitzu hori. 2 urtetan zehar elkargokide izatearen baldintza betetzen ez duten elkargokideek, hala eskatuz gero, titularraren laguntzaile gisa jardun ahal izango dute, esperientzia eta ezagutza lortzearen ondoretarako. Aldi berean, jardunean ez dauden elkargokideei prestakuntza eta praktika profesionalerako beste tresna bat eskainiko zaie zerbitzuaren bidez, Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzuan egindako kontsultetan egoteko aukera izango baitute entzule moduan.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lehentasunezko zat jotzen du herritarrei justizia soziala hurbiltzea xede duen proiektu bati laguntzea. Izan ere, zerbitzu horri esker, bizkaitarrek lan eta Gizarte Segurantzaren arloko informazioa eta orientazioa jasoko dute. Zerbitzu horretan,

jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines. El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia, agrupa de forma obligatoria a todos los Graduados Sociales que ejercen su profesión en el territorio de su demarcación y, con carácter voluntario a los que, no ejerciendo en dicho territorio, así lo soliciten; todo ello sin perjuicio de la posibilidad de actuación prevista en el artículo 13.2 de sus Estatutos.

La finalidad del Colegio es la representación y defensa de la profesión de Graduado Social y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad.

El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia ha presentado una solicitud de apoyo para la prestación de un Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral a la ciudadanía de Bizkaia.

El servicio, dada su especial característica de gratuidad, será prestado por las personas colegiadas ejercientes que, con una experiencia mínima de 2 años, de forma voluntaria y altruista, deseen unirse al proyecto y acercar un poco más la Justicia Social a la ciudadanía. Las personas colegiadas que no cumplan el requisito de los 2 años de colegiación podrán si lo solicitan, asistir como acompañantes de la persona titular, con el fin de adquirir experiencia y conocimiento. A su vez, servirá para ofrecer una herramienta más de formación y práctica profesional para las personas colegiadas no ejercientes que podrán asistir de oyentes a las consultas realizadas en dicho Servicio de Orientación Jurídica.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, considera primordial apoyar un proyecto que tiene como objetivo acercar la justicia social a la ciudadanía, para que ésta pueda recibir información y orientación de carácter laboral y Seguridad Social, facilitando a las personas los centros administrativos donde





orobat, adieraziko diete non aurkeztu behar duten beharrezkoa den dokumentazioa, eta dagozkion agiriak edo eskaera-orriak emango dizkiete.

Bizkaiko herritarrentzako Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzu hori oso garrantzitsua da gaur egungo une sozioekonomikoan, pertsona askok aholkularitza eta orientazioa behar baitute lanerako eskubidearen eta gizarte-segurantzaren arloan.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialaren artean hitzarmena sinatu behar da ekimen honi laguntzeko.

2023an Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari bere izenean esleitutako aurrekontua, 0904/G/241116/45100 aurrekontu-aplikazioan, 2017/0053 proiektuan, 10.000,00 eurokoa da

Proposatutako 10.000,00 euroko laguntza ematean, 0904/G/241116/45100 aurrekontu-aplikazioaren kargura, 2023ko aurrekontuko 2017/0053 proiektuan, bete egingo da maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2 artikuluko a) letran eta 26. artikuluan ezarritakoa. Artikulu horietan arautzen da, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren menpe egongo da zuzenean ematen den dirulaguntza hau, aplikatu behar diren gaiei dagokienez, eta, bereziki, Emandako dirulaguntzak Itzultzeko Araubidea arautzen duen II. tituluan eta Dirulaguntzen inguruko

podrán presentar la documentación necesaria y facilitarles los documentos o solicitudes pertinentes,

Este Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral a la ciudadanía de Bizkaia cobra especial importancia en el momento socio económico actual donde muchas personas precisan de un asesoramiento y orientación en el área del derecho del trabajo y la seguridad social.

Por todo ello, se precisa suscribir un convenio entre el Departamento de Empleo Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y el Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia para apoyar esta iniciativa

El presupuesto consignado nominativamente en 2023 a favor del Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia en la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2017/0053, asciende a 10.000,00 euros.

El otorgamiento de la ayuda propuesta por importe de 10.000,00 euros con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2017/0053 del presupuesto 2023 se realiza conforme a lo establecido en los artículos 20.2 apartado a) y 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regulan el procedimiento de concesión directa de subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Esta ayuda de concesión directa está sometida al resto del articulado de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, en lo que le resulte de aplicación, especialmente al Título II que regula el Régimen de Reintegro de las subvenciones concedidas, al Título IV, Infracciones y Sanciones





arau-hauste eta zehapenei buruzko IV. tituluari xedatutakoa, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean nahiz aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa ere.

administrativas en materia de subvenciones, así como a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y al resto de normas de carácter administrativo aplicables.

Horrenbestez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak:

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, el Consejo de Gobierno:

## ERABAKI DU

## ACUERDA

**LEHENENGOA.-** Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari (IFK: Q4869005A) 10.000,00 euroko dirulaguntza bat ematea, bizkaitarrentzako Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzu bat egiteko. Dirulaguntza honako honen kontura ordainduko da: 0904/G/241116/45100 aurrekontuko aplikazioa, Enplegu eta Ekintzaitzarako 2023ko programako 2017/0053 proiektua.

**PRIMERO.-** Conceder al Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia, con CIF Q4869005A, una subvención por importe de 10.000,00 euros, al objeto de prestar un Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral a la ciudadanía de Bizkaia, con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100 proyecto 2017/0053 del programa de Empleo y Emprendimiento en el ejercicio 2023.

**BIGARRENA.-** Baimena ematea Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialaren (IFK: Q4869005A) arteko hitzarmen bat sinatzeko.

**SEGUNDO.-** Autorizar la celebración de un convenio entre el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y el Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia, con CIF Q4869005A.

Hitzarmen horren testua erabaki honi erantsi zaio; bertan jaso dira lehenengo puntuari adierazitako ekarpena egingo duten aldean arteko konpromisoak eta baldintzak.

Mediante el citado Convenio, cuyo texto se adjunta, se recogen las condiciones y compromisos entre las partes por las que se otorga la aportación indicada en el punto primero.

**HIRUGARRENA.-** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatzeko eta hura garatzeko behar adina xedapen emateko.

**TERCERO.-** Facultar a la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para la firma del referido Convenio así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.





**LAUGARRENA.-** Erabaki hau Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari jakinaraztea, eta haren berri eta dagozkion txosten ekonomikoen berri ematea Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

**CUARTO.-** Notificar el presente Acuerdo al Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia y dar traslado del mismo y de los informes económicos correspondientes al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas

Enplegua Sustatzeko Zerbitzuko burua/La jefa del Servicio de Empleo. MARIA TERESA EGUSQUIZAGA LÓPEZ DE BARRERA.

**O.E/VºBº**

Enplegua sustatzeko zuzendaritza nagusiaren Zuzendari nagusia/Directora general de la Dirección general de Empleo. MARIA SUSANA GONZALEZ ROMULO.

**AURREKO TRAMITEAN EZARRI DENAREKIN BAT, GOBERNU KONTSEILUARI AURKEZTU BEHAR ZAIO./DE CONFORMIDAD CON EL TRÁMITE PRECEDENTE, ELEVESE AL CONSEJO DE GOBIERNO**

Enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Saileko foru diputatua/ La diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad .Mª TERESA LAESPADA MARTÍNEZ.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILAREN ETA BIZKAIKO GRADUATU SOZIALEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO HITZARMENA, AURREKONTUETAN NORBAITEN IZENEAN ESLEITUTAKO DIRULAGUNTZA ZUZEN BAT BIDERATZEKO.

CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL COLEGIO OFICIAL DE GRADUADOS SOCIALES DE BIZKAIA POR LA QUE SE CANALIZA UNA SUBVENCIÓN DIRECTA CONSIGNADA NOMINATIVAMENTE EN LOS PRESUPUESTOS.

Bilbon, 2023ko      aren      (e)(a)n.

Bilbao, a      de      de 2023

#### HAUEK BILDU DIRA:

#### REUNIDOS

Alde batetik, TERESA LAESPADA MARTÍNEZ andrea, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatu, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari.

De una parte Dña. TERESA LAESPADA MARTÍNEZ, diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Eta, beste aldetik, GUILLERMO GUMB HERNÁNDEZ (NAN zk.: 16048813B), Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialeko (IFK: Q4869005A) presidentea, elkargo horren izenean eta ordezkari

Y de la otra, D. GUILLERMO GUMB HERNÁNDEZ, con D.N.I. 16048813B, en nombre y representación del Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia, con CIF Q4869005A, en su calidad de Presidente del mismo.

Bi alderdiek elkarri aitortu dizkiote hitzarmen hau egiteko behar besteko ahalmena eta legegaitasuna, eta, horrenbestez, hau

Ambas partes se reconocen competencia y capacidad legal para la celebración del presente Convenio, y

#### AZALTZEN DUTE:

#### MANIFIESTAN

1. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak

1. El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de





ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsoneri. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratatu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetzaren zein garapenaren arloko politiken bidez.

2. Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofiziala, berriz, zuzenbide publikoko lanbide-korporazio bat da, nortasun juridiko propioa eta helburuak betetzeko gaitasun osoa dituen. Graduatu sozialaren lanbidearen ordezkari eta defentsa da elkargoaren helburua, bai eta gizartearen interes eta beharrezkoak kontuan hartuta elkargokideen interes profesionalak defendatzea ere.
3. Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzu bat egingo du, eta, haren bidez, lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren alorretako aholkularitza eta orientazioa eskainiko ditu.
4. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lehentasunez jotzen du herritarrei justizia soziala hurbiltzea xede duen proiektu bati laguntzea, herritarrek haren bidez jaso ahal izango baitituzte lan eta Gizarte Segurantzaren alorretako informazioa eta orientazioa.
5. Bizkaiko herritarrentzako Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzu hori oso garrantzitsua da gaur egungo une sozioekonomikoan, pertsona askok aholkularitza eta orientazioa behar baitute

servicios a aquéllos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

2. El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia es una Corporación de derecho público, de carácter profesional, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines. La finalidad del Colegio es la representación y defensa de la profesión de Graduado Social y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad.
3. El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia, va a prestar un Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral, ofreciendo asesoramiento y orientación en el área del Derecho de Trabajo y Seguridad Social.
4. El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, considera primordial apoyar un proyecto que tiene como objetivo acercar la justicia social a la ciudadanía, para que ésta pueda recibir información y orientación de carácter laboral y Seguridad Social
5. Este Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral a la ciudadanía de Bizkaia cobra especial importancia en el momento socio económico actual donde muchas personas precisan de un asesoramiento y





lanerako eskubidearen eta gizarte-segurantzaren arloan.

orientación en el área del derecho del trabajo y la seguridad social.

6. Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialaren aldeko 10.000,00 euroko dirulaguntza bideratzea eta baldintzak eta konpromisoak ezartzea.
  7. Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (DLFA) 20.2 artikuluan hauxe xedatu da: "Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan zehaztu bezala". Halaber, 26.1 artikuluan honakoa ezarri da: "Hitzarmenak izango dira [...] dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna".
  8. Beste alde batetik, 5/2005 Foru Araua garatu duen Dirulaguntzei buruzko Araudiak (DLFAA, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua) 50. artikuluan ezarri du kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailatzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoretarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du. Gainera, 13. artikuluan dirulaguntzen onuradunen betebeharrak ezarri ditu.
  9. Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko aren ko bileran hartutako erabakiaren bidez (gai-zerrendako \_\_. gaia), Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eman zitzaion Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko diputatuari.
6. La finalidad del presente convenio es canalizar a favor del Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia la subvención por importe de 10.000,00 euros, así como establecer las condiciones y compromisos.
  7. La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones (NFS) dispone en su artículo 20.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.
  8. Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (RNFS), aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50 prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo, en tanto que el artículo 13 de la NFS recoge las obligaciones de las personas beneficiarias de subvenciones.
  9. Que la Diputación Foral de Bizkaia mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de fecha de de 2023, asunto del Orden del día, habilitó a la Ilma. Sra. Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para firmar este convenio en nombre de la Diputación Foral de Bizkaia.







Aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, bi alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, zeinak klausula hauek bete behar dituen

De conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENENGOA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari 10.000,00 euroko dirulaguntza ematea eta aleen baldintzak eta konpromisoak jasotzea, Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzua egiteko; zerbitzu horren bidez, lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren alorretako aholkularitza eta orientazioa eskainiko ditu.

Zerbitzua doakoa izango denez, borondatez eta modu altruistan proiektuarekin bat egin nahi duten eta justizia soziala herritarrei gehixeago hurbildu nahi dieten jarduneko elkargokideek emango dute zerbitzu hori. 2 urtetan zehar elkargokide izatearen baldintza betetzen ez duten elkargokideek, hala eskatuz gero, titularraren laguntzaile gisa jardun ahal izango dute, esperientzia eta ezagutza lortzearen ondoretarako. Aldi berean, jardunean ez dauden elkargokideei prestakuntza eta praktika profesionalerako beste tresna bat eskainiko zaie zerbitzuaren bidez, Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzuan egindako kontsultetan egoteko aukera izango baitute entzule moduan.

Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzua 2023ko maiatzaren 2tik 2024ko apirilaren 30ra bitartean emango zaie bizkaitarrei.

Dirulaguntza emateko aurrekontu-kreditua IV. kapituluko (transferentzia arruntak) 241116 programako kreditu bat da; beraz, funtsak bakarrik erabili ahal izango dira kreditu horri egotz dakizkiokeen gastuen izaera eta xede berea duten gastuetarako.

### PRIMERA: OBJETO DEL CONVENIO

El objeto del presente Convenio es canalizar a favor del Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia la subvención por importe de 10.000,00 euros, así como recoger las condiciones y compromisos entre las partes, con el propósito de prestar un Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral, ofreciendo asesoramiento y orientación en el área del Derecho de Trabajo y Seguridad Social.

El servicio, dada su especial característica de gratuidad, será prestado por las personas colegiadas ejercientes que, con una experiencia mínima de 2 años, de forma voluntaria y altruista, deseen unirse al proyecto y acercar un poco más la Justicia Social a la ciudadanía. Las personas colegiadas que no cumplan el requisito de los 2 años de colegiación podrán si lo solicitan, asistir como acompañantes de la persona titular, con el fin de adquirir experiencia y conocimiento. A su vez, servirá para ofrecer una herramienta más de formación y práctica profesional para las personas colegiadas no ejercientes que podrán asistir de oyentes a las consultas realizadas en dicho Servicio de Orientación Jurídica.

El servicio Orientación Jurídico Laboral será prestado a la ciudadanía de Bizkaia desde el 2 de mayo de 2023 hasta el 30 de abril de 2024.

El crédito presupuestario que ampara la concesión, es un crédito del capítulo 4 "Transferencias corrientes" del programa 241116 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad





Hitzarmen honen bidez sortutako gastua, hau da, 10.000,00 euroko zenbatekoa honako honen kontura ordainduko da: 0904/G/241116/45100 aurrekontuko aplikazioa, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Enplegu eta Ekintzailetzarako 2023ko ekitaldiko programako 2017/0053 proiektua.

a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

El gasto originado por el presente convenio se realizará con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100 proyecto 2017/0053 del programa de Empleo y Emprendimiento por importe de 10.000,00 euros en el ejercicio 2023 del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

## **BIGARRENA: ALDERDIEN KONPROMISOAK**

Xedea lortzeko, hitzarmena sinatzen duten alderdiek ekarpenen eta konpromisoen araubide hau adostu dute:

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Zerbitzua kalitate-bermerik handienekin ematea kontsulta-fasean.
- Zerbitzuan, aurretik eskatzen duten herritarrei informazioa eta orientazioa emango zaie lanaren eta Gizarte Segurantzaren alorretako gaiei buruz. Elkargoak ez du egingo ez epaiketa-ekintzarik ez epaiketaz kanporik, haren eginkizun bakarra informazioa eta orientazioa ematea izango baita. Hain zuzen, beharrezkoak diren bitarteko tekniko eta informatikoak baliatuta, herritarrei adieraziko die zer administratziotan aurkeztu behar duten dena delako dokumentazioa, eta dagozkion agiriak edo eskabide-orriak emango dizkie; baina ezin izango ditu bete edo aurkeztu.
- Orientazio hori jaso nahi duten pertsonak harremanetan jarri behar dira elkargoarekin; kontsulta aurrez aurre edo telefonoz egin ahal izango dute. Kontsulta inprimaki batean jasota geratuko da. Ondoren, elkargoa harremanetan jarriko da graduatu

## **SEGUNDA: COMPROMISOS DE LAS PARTES**

Para la consecución del objetivo, las partes que suscriben el presente Convenio acuerdan el siguiente régimen de aportaciones y compromisos:

El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia se compromete a:

- Prestar el servicio con las máximas garantías de calidad, en su fase consultiva.
- En desarrollo del servicio se informará y orientará a los ciudadanos y las ciudadanas que lo soliciten, previamente, sobre temas de carácter Laboral y de Seguridad Social. No se podrán realizar acciones judiciales o extrajudiciales, siendo su labor exclusiva de información y orientación, facilitando a los ciudadanos y las ciudadanas los centros administrativos donde podrán presentar la documentación necesaria y facilitarles los documentos o solicitudes pertinentes, contando para ello con los medios técnicos e informáticos necesarios, pero no podrán rellenarlos o presentarlos.
- Las personas que deseen recibir dicha orientación deberán ponerse en contacto con el Colegio, pudiendo realizar la consulta tanto presencial como telefónicamente. La consulta queda reflejada en un impreso. El Colegio contacta con la persona





sozialarekin, eta hark, kontsula aztertu ondoren, aukera izango du zerbitzua emateko modua hobetzeko beharrezkoak diren agiriak eskatzeko elkargoaren bidez.

- Zerbitzua goizez emango da, eta pertsona bakoitzari 25 minutu eskainiko zaizkio, gehienez. Beharrezkoa da aurretiko hitzordua eskatzea.
- Zerbitzua Justizia Jauregiko Graduatu Sozialen Aretoan eskainiko da, Bilboko Gizarte-Arloko Epaitegian (Barroeta Aldamar 10-1, Bilbo), eta bateragarria izango da hura emateaz arduratzen den graduatu sozialak ematen dituen zerbitzu profesionalekin edo besteren konturako zerbitzuekin.
- Kontsulta-egileak aurkeztu duen gaia aztertzeko jarraitu behar bada beste kontsulta batzuetan, orduan, profesionalak aukera eskainiko dio Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzuari atxikitako edozein elkargokideren jarraitzeko (haien bulego partikularretan), eta zerbitzuari atxikitako elkargokideen zerrenda emango dio. Erabiltzaileak, beraz, libreki aukeratu ahal izango du norekin jarraitu.

Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, konpromiso hauek hartzen ditu Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bidez:

- Orientazio Juridiko eta Laboraleko Doako Zerbitzuen zabalkundea egingo du, prentsa-kanpainetan parte hartuz eta, oro har, haren berri emanez.
- Hitzarmena egokiro garatzeko behar diren baliabideak jarriko ditu.
- Eta 10.000,00 euroko gehieneko diru-ekarpen bat egingo du, honako honen

profesional graduada social quien una vez vista la consulta puede solicitar a través del Colegio aquellos documentos necesarios para mejorar la prestación del servicio.

- El horario de prestación del servicio será de mañana, bajo cita previa, y con un máximo de duración por persona de 25 minutos.
- La prestación de Servicios de Orientación Jurídica Gratuita se realizará en la Sala de Graduados Sociales del Palacio de Justicia, Juzgado de lo Social de Bilbao, situado en calle Barroeta Aldamar nº 10 - 1º de Bilbao, y será compatible con la prestación de servicios profesionales o por cuenta ajena del Graduado o la Graduada Social que lo dispense.
- Si el asunto planteado por la persona consultante, tuviera que ser continuado en otras consultas posteriores, la persona profesional le ofrecerá la posibilidad de continuar con cualquier persona colegiada adscrita al Servicio de Orientación Jurídico Laboral, desde sus despachos particulares, para lo cual le facilitará la relación de las personas Colegiadas adscritas al Servicio, siendo libre su elección por parte de la persona usuaria.

Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia a través de su Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad se compromete a:

- Difundir el Servicio Gratuito de Orientación Jurídico Laboral, colaborando en campañas de prensa y dándolo a conocer.
- Aportar los medios necesarios para el adecuado desarrollo del convenio.
- Aportar la cantidad máxima de 10.000,00,-euros, con cargo a la





kontura ordainduko dena:  
0904/G/241116/45100 aurrekontuko  
aplikazioa, Enplegu eta  
Ekintzaitzarako 2023ko programako  
2017/0053 proiektua.

aplicación presupuestaria  
0904/G/241116/45100 proyecto  
2017/0053 del programa de Empleo y  
Emprendimiento para el ejercicio  
2023.

## HIRUGARRENA: TXOSTENAK EGITEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak, jarraian adierazitako epeetan, honako txosten eta datu hauek aurkeztu beharko ditu:

1. 2023ko abenduan, aurtengo azaroaren 30era arteko betearazte-mailari buruzko txosten bat aurkeztu beharko du, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduera-memoria jasotzen duena. Memoria horretan, informazio hau adierazi beharko da: egun horretara arte egindako jardueretako bakoitzaren deskripzio zehatza, zenbat pertsonak jaso duten orientazioa (sexu, adin eta udalerraren arabera bereiziak), zerbitzuan zenbat ordu eman diren eta zer motatako kontsulta izan diren.
2. 2024ko apirilaren 30a baino lehen, gastuen egiaztagiriekin batera, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du (justifikazio-kontua martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluan arautzen da), Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistroan. Beraz, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduera-memorian, non informazio hau adierazi beharko den: egindako jardueretako bakoitzaren deskripzio

## TERCERA: ELABORACIÓN DE INFORMES Y JUSTIFICACIÓN

El Colegio Oficial de Graduados Sociales de Bizkaia deberá presentar, en los plazos que a continuación se señalan los siguientes informes y datos:

1. En el mes de diciembre de 2023 deberá presentar un informe intermedio de ejecución a 30 de noviembre de 2023 que contenga la memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las actividades realizadas hasta la fecha, con indicación del número de personas orientadas desgregadas por sexo, edad y municipio, las horas invertidas, así como la tipología de consultas realizadas.
2. Para el 30 de abril de 2024 la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que se presentará en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad por lo que se requiere la presentación de la siguiente documentación:

La memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las actividades





zehatza eta lortutako emaitzena; zenbat pertsonak jaso duten orientazioa (sexu, adin eta udalerraren arabera bereziak); zerbitzuan zenbat ordu eman diren, eta zer motatako kontsulta izan diren.

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek jasotzen dituena:

- ✓ Diruz lagundutako jarduerari egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria.
- ✓ Gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, gastuen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa eta ordainketa-data ere.

